

Euskal AEko esportazioak %17,3 igo ziren 2010eko laugarren hiruhilekoan

2010. urte osoan merkataritza-saldoko superabita ia 2.289 milioi izan dira; estaldura-tasa, %115

Euskal AEko esportazioak %17,3 hazi ziren nominalki 2010eko laugarren hiruhilekoan, EUSTATEN arabera. Atzerrian egindako salmentak: 4.648,9 milioi 2010eko azken hiru hiletan; urtebete lehenago 3.963,7.

Guztizko Euskal AEko Inportazioak: 4.061,2 milioi, urte arteko %24,4ko hazkundera. Produktu ez-energetikoen inportazioak gutxiago igo ziren: %16,8.

Merkataritza-saldoak (esportazioak ken inportazioak) bilakaera positiboa izan du, esportazioen pisu handiagoari esker; urtebete lehenagoko 700,3 milioiko superabitetik aurtengo 587,7kora pasatu da; esportazioen inportazioen gaineko estaldura tasa %114,5 da


Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera.Laugarren hiruhilekoak, 2009 / 2010. Mila eurotan

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria-Abendua			Urria-Abendua		
	2009	2010	Δ %	2009	2010	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	3.963.675	4.648.905	17,3	3.263.367	4.061.159	24,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	367.045	452.680	23,3	1.013.467	1.432.719	41,4
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	3.596.630	4.196.225	16,7	2.249.900	2.628.440	16,8
ARABA						
GUZTIRA	968.559	1.197.280	23,6	566.134	625.083	10,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.294	1.013	-21,7	5.481	8.154	48,8
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	967.265	1.196.266	23,7	560.653	616.930	10,0
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.747.950	1.995.427	14,2	1.959.155	2.591.297	32,3
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	358.404	445.558	24,3	965.774	1.394.184	44,4
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.389.546	1.549.869	11,5	993.381	1.197.112	20,5
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.247.166	1.456.198	16,8	738.077	844.779	14,5
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	7.347	6.108	-16,9	42.212	30.381	-28,0
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.239.819	1.450.089	17,0	695.866	814.398	17,0

Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Merkataritza-saldo ez-energetikoak 1.567,8 milioiko superabita du; aurreko urtean 1.346,7. Estaldura-tasak: %159,9 2009.ean, %159,6 2010.ean.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. Urte arteko hazkunde tasak



Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Europar Batasunerako esportazioak %29,3 hazi dira; 12 ehuneko-puntu gehiago guztirakoak izandako hazkunde baina. Daturik positiboak Belgikan (%49,1), Alemanian (%42,7), Italian (%37,0) eta Frantzian (%26,7). Bolumen garrantzitsua duten gainerakoen artean, hona hemen salmenta-hazkunde nabarmenak: Latinoamerika (%30,9) eta AEB (%25,5).

Europar Batasunetiko inportazioak %6,5 hazi dira; Erresuma Batukoak %17,1, Frantziakoak %16,5, Alemaniakoak %8,7. Italiatiko inportazioak %3,5 murriztu dira.

Europar Batasunarekiko merkataritza-superabita handitu egin da; aurreko urtean 508,1 milioi eta 2010eko azken hiruhilekoan 1.061,4; ondorioz, estaldura tasan ehuneko 27,5eko punturen igoera dugu.

2010eko laugarren hiruhilekoko esportazioak, funtsean, bi **muga-zergaren** eragin positiboaren mende dago: *Metalak eta haien manufakturak* (%41,7) eta *Material elektrikoa* (%14,0); bien artean aurreko urteko aldi bereko esportazioak baino 493,9 milioi gehiago gauzatu dituzte. Gainerako muga zergen sekzio nagusien artean, hazkunde handiak: *Plastikoak eta kautxua* %67,7; *Produktu kimikoak* %47,1; *Produktu mineralak* %23,3. Hiruren arteko esportazio-hazkunde 277,3 milioikoa da 2009ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Ia muga-zergen sekzio guztietan hazkundeak daude; garrantzitsuen artean *Garraio materiala* (%-15,1) da salbuespena.

Inportazioetan, hazkundeak daude sekzio gehienetan: *Produktu mineralak* (%41,4) eta *Metalak eta haien manufakturak* (%24,1) nabarmentzen dira. Bien artean 591,8 milioi gehiago aurreko urteko hiruhileko berean baino. Gutxiago, baina hazi ere dira *Material elektrikoko* (%8,9) inportazioak eta jaitsi (%8,5) *Garraio materialekoak*.

2010eko laugarren hiruhilekoan esportazio-hazkunde nabarmenak daude hiru lurraldeetan: Urte artean esportazioak %23,6 hazi dira **Arabian**, %16,8 **Gipuzkoan** eta %14,2 **Bizkaian**. Inportazioetan ere saldo positiboak daude hiru lurraldeetan, esportazioen kontrako hurrenkeran: **Bizkaian** %32,3, **Gipuzkoan** %14,5 eta **Arabian** %10,4.

2010 urteko balantzea

Euskal AEko esportazioak 17.545,9 milioi izan ziren 2010. urtean, aurreko urtean baino %20,1 gehiago. Aldi berean, guztizko **inportazioetan** ere %24,3ko hazkunde azpimarragarria izan zen. Bi fluxuen eraginez, esportazioen inportazioen gaineko estaldura-tasa 4 puntuz murriztu da, 2009ko %119tik 2010eko %115era. 2010.ean sortutako superabita: 2.288,7 milioi, aurreko urtean baino 40 milioi gutxiago ia.


Produktu ez-energetikoen **saldoak** hobera egin du aurreko urtekokoaren aldean: 6.078,5 milioi, 2009an 5.289,1. Produktu ez-energetikoen estaldura-tasa 4,3 puntuz jaitsi da, 2009ko %165,4tik 2010eko %161,1era.

Euskal AEn bai esportazioak, bai inportazioak estatuaren osotasunean baino gehiago hazi dira. Estatuan esportazioan %17,4 hazi ziren eta Euskal AEn %20,1. Inportazioetan, %14,2 hazi estatuan eta %24,3 gure erkidegoan.

2010ean esportazio-hazkunderik handienak *Metalak eta haien manufakturak* (%31,7) eta *Garraio-materiala* (%23,1) sekzioek izan zituzten. Bi **muga-zergen** sekzio hauek gure esportazioen %50 hartzen dute. Gainerako sekzioetan ere hazkunde nabarmenak daude, esaterako: *Plastiko eta kautxua* (%30,7) eta *Produktu mineralak* (%23,0).

2010. urte osoan **Bizkaian** izan zen esportazioen gehikuntzarik handiena, %29,2; **Arabian** ondoren, %20,7 eta **Gipuzkoan** %9,2. Inportazioak %27,8 hazi ziren **Bizkaian**, %19,1 **Gipuzkoan** eta %17,4 **Arabian**.

Euskal AEko kanpo-merkataritza. Hileko datuak (Joera)



Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gainera prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gainera datu-bankua